

UNITATEA	KOMUNIKAZIOA		HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA
	Ataria	Irakurmena	Gramatika	EGITEN JAKIN	EGITEN JAKIN Komunikazio-jarduerak
1	Erritmo bizia • Djembéren taupada ozenak	Errugbiaren jatorriaz	• Adjektiboa • Adberbioa • Galdegaia	• Olerki labur bat idaztea	• Eztabaida: tradizioa ala berrikuntza? • Gorputzarekin hitz egiten • Idazlana: artea hezkuntzan
2	A zelako fauna! • Piztia bitxiak	Kong gorila erraldoia	• Izen motak • Osagarri zuzena eta zehar-osagarria • Juntadura I	• Atsotitz berriak asmatzea	• Eztabaida: animaliak, gizakien pare? • Adoptatu galgo bat • Idazlana: animaliak gatibutzan
3	Gal edo irabaz • Loteriaren historia	Las Vegas, jokoa eta pilota	• Izenordain arruntak eta indartuak • Aditz jokatugabeak • Juntadura II	• Ikasbidaia antolatzea	• Eztabaida: jokoa eta kirola • Errege-opilaren jatorria • Idazlana: gizakien bizitza idatzita al dago?
4	Hotzetan bero! • Neguko kirolak	Malabarismoa	• Izenordain zehaztugabeak • Aditz-izena • Perpaus osagarriak	• Albistea idaztea	• Eztabaida: futbolak gehiegizko garrantzia hedabideetan? • Groenlandian kayakez • Idazlana: kirol profesionala
5	Sarien sona • Urrezko Pipa	Galdetu Harryri	• Izenordain bihurkariak • Aditz jokatuak • Moduzko perpausak	• Geure buruaren berri ematea	• Aurkezpena: aktore baten bizitza • Zinema-izar bihurtu zen igerilaria • Idazlana: aretoan ala etxean?
6	Filiak eta fobiak • Fobos	Jaki-jogailua	• Determinatzaile mugatzaileak • Aditz trinkoak • Denborazko perpausak	• Ekitaldi bat antolatzea	• Eztabaida: biomedikuntza • Chantelle Winnie, eredu • Idazlana: kirurgia estetikoa
7	Artistak ahotik oinetaraino • Mugarik gabe	Zapata abandonatuak	• Determinatzaile zenbatzaileak • Aditzaren aspektua • Kausazko perpausak	• Ume baten galdeketari erantzutea	• Eztabaida: markak, bai ala ez? • Baserria, Natura Eskola Bizia! • Idazlana: non erosi?
8	Hizkuntzak eta mitoak • Babelgo dorrea	Esperantoaren bidez	• Determinatzaile zehaztugabeak • Indikatiboko aditzak • Ondorio-perpausak	• Txiste berriak asmatzea	• Aurkezpena: iragarkia egitea • Erromatar grafitiak • Idazlana: papera ala eBook-a?
9	Laserrak bizi gaitu • Maiman-en sena	Mirari baten kronika	• Deklinabidea: kasuak • Baldintza • Konparazio-perpausak	• Etorkizunerako hipotesiak azaltzea	• Eztabaida: bizitza betirakoa? • Unairen besoa • Idazlana: muga etikoak
10	Gazte unibertsalak • Orkestra mundiala	Dan Brown euskaraz	• Deklinabidea: mugagabea • Subjuntiboa • Helburuzko perpausak	• Asmakuntza bat deskribatzea	• Mahai-ingurua: tokiko hizkuntzak • Kapulana bat zintzilik • Idazlana: migrazioaren zergatiak
11	Harreman-bide • Burdinbideak loturik	Zinemarako moduko maitasun-istorioak	• Postposizioak • Ahalera • Lokailuak I	• Ondorioak aurreikustea	• Eztabaida: sarean ligatzea • Txokolateari buruzko mitoak • Idazlana: gastronomia
12	Zuzenean vs. aurrez grabatua • Han izan nintzen!	Sakelakoa zinema-aretoetan	• Izenordain elkarkariak • Agintera • Lokailuak II	• Jarraibideak azaltzea	• Eztabaida: nolako kontzertuak? • Ahopeko kontzertuak • Idazlana: ordainduta ala doan?
ERANSKINA	Gramatika-ariketategia • Gramatika laburra • Aditz-taulak • Testu-tipologia • Lexiko-sorkuntza • Ortografia-arauak • Literatura-glosario				

HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA	LITERATURA-HEZKUNTZA		AMAIERAKO JARDUERAK
Lexikoa	Ortografia	EGITEN JAKIN Testu-tipologia	Jakingaiak eta testuak	EGITEN JAKIN	
- Hitz motak - Izenak sortzen dituzten atzizkiak 16	- Data/ordua - Letra larriak 17	Albistea <i>Semaforo dantzaria</i> Iritzi-artikulua <i>Dirua banu...</i> 18	Sarrera: literaturaz eta euskal literaturaz <i>Amaren eskuak</i> KARMELE JAIO 20	Epigrafea idaztea 22	<i>Ekialdeko dantzaren lilura</i> ▶ 24
- Onomatopeiak - Konnotazioa eta denotazioa 36	- Zenbakien idazkera - Puntuazioa 37	Eleberria <i>Olagarroak</i> Kazetaritza-elkarrizketa <i>M. Goñi, txakurkroslaria</i> 38	Erdi Aroa: eresia eta erromantze epikoa <i>Milia Lasturkoren eresia</i> 40	Oda sortzea 42	<i>Etorkizuneko animaliak hemen dira</i> ▶ 44
- Sinonimia eta antonimia - Izenondoak sortzen dituzten atzizkiak 56	- Loturik ala bereiz -a itsatsia 57	Iruzkina <i>Slumdog millionaire</i> Dibulgazio-testua: deskribapena <i>Taj Mahal</i> 58	Errenazimentua: XVI. mendeko egileak <i>Silbia eta Silbero</i> JOAN PEREZ LAZARRAGA 60	Antzezpen laburra egitea 62	<i>Txiripa bitxiak</i> ▶ 64
- Homonimia eta polisemia - Aditzak sortzen dituzten atzizkiak 76	- H letra - Komaren erabilera 77	Gertakari historikoa <i>Dorre bikien arteko paseoa</i> Entziklopediako sarrera <i>Philippe Petit</i> 78	Barrokoa: Sarako eskola <i>Mezenas (Gero)</i> PEDRO AGERRE AXULAR 80	Iritzia ematea 82	<i>Parkourra, kale-ginkana bizia</i> ▶ 84
- Atzizki bidez sortutako adberbioak - Hiztegia 96	- Txistukariak - Puntu eta koma 97	Gutun irekia <i>Zinema-aretoak bizirik!</i> Eskabidea <i>Filmatze bat gertutik</i> 98	Ilustrazioa: Larramendiren mendea <i>Euskararen hizketak...</i> AGUSTIN KARDABERAZ 100	Entziklopediako sarrera bat osatzea 102	<i>Izarren ahotsa</i> ▶ 104
- Arlo semantikoa eta arlo lexikoa - Kortesiako esapideak 116	- Bi puntuen erabilera - Txistukariak 117	Dibulgazio-testua: arazo-konpon. <i>Hortzetako pasta, beharrezkoa?</i> Saiakera <i>Gizarte depresiboa</i> 118	XIX. mendea. Erromantizismoa: sorkuntza generoka <i>Gazte hiltzerat doana</i> J.P. ELIZANBURU 120	Maitasun kanta bat itzultzea 122	<i>Jasotako maitasun itzulezina</i> ▶ 124
- Jatorri atzizkiak eta atzizki graduatzaileak - Aurritzkiak eta artizkiak 136	<i>Bait</i> partikula - Zenbakien idazkera 137	Olerkia <i>Antologia txikia</i> Lagunarteko mezu elektronikoa <i>Txarolezko bota gorriak</i> 138	Errealismoa eta kostunbrismoa: literaturaren eraikina jasotzen <i>Kai gainean egotalditxu bat</i> R. M. AZKUE 140	Komiki errealista egitea 142	<i>Iraultza kirol-marketinean</i> ▶ 144
- Zabalkuntza semantikoa - Berrezarpen lexikala 156	- Maileguen idazkera - Siglak eta laburdurak 157	Antzezlanak <i>Herio heroi</i> Prosa poetikoa <i>Zerua berun</i> 158	XX. mendea: abangoardiak eta Euskal Pizkundea <i>Begien omenez</i> E. URKIAGA LAUAXETA 160	Olerki grafikoa sortzea 162	<i>Ahokotasunik gabe, hil da hizkuntza</i> ▶ 124
- Maileguak - Kalkoak 176	- Loturik ala bereiz - Adizkien idazkera 177	Aurkezpen-gutuna <i>Kardio PRO app-a</i> Bertsoak <i>#saresozialei jarriak</i> 178	Iraultza literarioak: Txillardegi, Mirande, Aresti <i>Jainkoa jaio da Otxarkoagan</i> GABRIEL ARESTI 180	Bideoklipa egitea 182	<i>Telefono mugikorrak eta osasuna</i> ▶ 184
- Izenak sortzen dituzten hitz elkartuak - Interjekzioak 196	- Hitz-elkartuen idazkera - Komatxoak eta parentesiak 197	Ipuin literarioa <i>Mandukaren zoriona</i> Dibulgazio-testua: kausa-ond. <i>Ametzen misterioa</i> 198	Joera berriak: euskal idazleen harrobia <i>Ehun metro</i> RAMON SAIZARBITORIA 200	Film laburra egitea 202	<i>Nire txokoa leiho bat da</i> ▶ 204
- Lokuzioak eta esaera zaharrak - Aditz-elkarteak 216	- Maileguen idazkera - Puntuazioa 217	Gonbita <i>Beldur-barik jarrera!</i> Bilerak-akta <i>Aretxederreta aretoa</i> 218	Postmodernitatea eta XX. mendearen amaiera <i>Trikuarena</i> BERNARDO ATXAGA 220	Iragarkian oinarritutako olerkia idaztea 222	<i>Lurtarren grina</i> ▶ 224
Atzizkien berrikusketa 236	- Hitz-elkartuen idazkera - Ortografia eta teknologia 237	Iritzi-artikulua <i>Irudiaren prezioa</i> Kazetaritza-elkarrizketa zeharka <i>Berdintasunerako ziaboga</i> 238	XXI. mendea: mundu globala eta «ni»aren literatura <i>Zu</i> ANJEL LERTXUNDI 240	Mapa sentimentala sortzea 242	«Makro» eta «mikro» ▶ 244

A zelako fauna!

Euskara

JAKIN

- Izen motak, aditzaren osagarriak eta juntadura
- Esanahi motak eta onomatopeiak
- Zenbakien idazkera eta puntuazioa

EGITEN JAKIN

- Eztabaida
- Idazlan luzea
- Testu-tipologia: eleberri eta kazetaritza-elkarriketa
- Idazlan laburra

Literatura

JAKIN

- Eredu epikoa

EGITEN JAKIN

- Oda sortzea



MINTZATU



- Ezagutzen dituzu goiko irudiko "lagunak"? Ba al dakizkizu haien izenak? Esan dakizun guztia.
- Zure ustez, zergatik agertzen ote da hainbeste animalia mitologian?
- Gaur egun bizirik ote dirau izakion oroimenak?



ENTZUN



Entzun *Piztia bitxiak* testua eta erantzun:

- Zelakoa da Zerbero eta zer betekizun du?
- Zer alde dago Adarbakarraren, Zentauroren eta Pegasoren artean?
- Zer dio Fenix hegaztiaren kondairak?

Hau da hau!

Animaliak euskal mitologian

Sugaar izaki mitologikoa, kasurako, Mari jainkosaren senarra da eta bi seme ditu harekin, Atarrabi zintzoa eta Mikelats gaiztoa. Suge itxura du eta ekaitz sortzaile omen da.



Akerbeltz erdi gizaki erdi aker azaltzen zaigu euskal mitologian, eta funtzio bikoitza du. Alde batetik, gainerako animaliak babesten ditu, eta bestetik, sorgin eta aztien gidari ageri zaigu, bai eta akelarreetako buru ere.

Laminak emakumezko izaki mitologikoak dira. Ile luzea eta ahate oinak dituzte, eta errekoetan egoten ei dira beren adats luzea urrezko orraziaz orrazten. Kostaldekoak, berriz, itsaslaminak dira, eta gerritik behera arra- in buztana dute.



Zezengorri zezensuzkoaren itxura du eta sugarrak darizkio sudur-zuloe- tatik. Kobazuloen zaindaria da, eta eraso egiten dio ko- bara harriak jaurtitzen di- tuenari. Euskal «Zerbero» dela esan genezake.



Toti martinez de Lezea

Toti idazle larrabetzuarra ezagunak genero asko lan- du ditu, baina hemen eus- kal mitologiarekin izan duen harremanagatik aipa- tuko dugu. 1986an *Euskal lelendak* izeneko kondaira bilduma argitaratu zuen.

2014an Enda-Lur argitaratu zuen, eleberri histo- riko-fantastiko bat, mitologiak gizartean eragin ikaragarria zueneko garai ilunean girotua.

Elkarrizketa

Anika Lillo, 2015eko abuztua

- **Toti, zure liburuetan askotan agertzen dira izaki mitologikoak, baina Endalurren pertsonaia bilakatu dituzu.**

Gaur egun genero fantastiko mitologikoan iru- diteria anglo-saxoia erabiltzen da: erregeak, trolak, elfoak... Baina euskal mitologia oso joria da eta ez dut batere arazorik izan istorio eta pertsonaia erakargarriak sortzeko.

- **Genero fantastikoan mitologia askatasun handiz jorratzen da.**

Eleberri honetako sineskerak errealak dira, gure kondairetatik aterak, nahiz eta nik fikzioz jantzi.

- **Eta datu historikoak?**

Horiek ere badaude liburuan: tribuak, gertaerak eta lekuak errealak dira.



IRAKURRI



- Zelakoa sa Sugaar eta zer harreman du Marirekin?
- Zein dira Akerbeltzen bi betekizun nagusiak?
- Nolakoak dira laminak? Eta itsaslaminak?
- Zelakoa da zezengorri eta non agertzen ei da? Zergatik esan dezakegu euskal «Zerbero» dela?



IDATZI



Irakurri goiko elkarrizketa zatia eta saiatu galderoi erantzuten:

- Nor da elkarrizketatua eta nor elkarrizketatzailea?
- Zure ustean, zein da Totiren iritzia euskal mitologiari buruz? Eta zurea?

Kong gorila erraldoia

Nork ez du King-Kong gorila erraldoiaren berri? Film batean baino gehiagotan azaldu da gorila ezagun hori, 1933an lehen aldiz pantailetan agertu zene-tik.

Lehen film haren sinopsia nahiko ezaguna da: Carl Denham izeneko zinema-zuzendari batek Kong izeneko kondairazko munstroa filmatu nahi du uharte misteriotso batean. Inork ez omen daki non dagoen uharte hura, baina Denhamek haren mapa bat dauka. Abentura filmatu nahi du, eta horretarako, ezagutu berri duen neska bat kontratatzen du, Ann Arrow. Ann neska behartsua da, baina etorkizun handikoa. Denhamek protagonistaren rola eskaintzen dio, zine-izar bihurtuko duelako promesa pean. Behin uhartera helduta, hango biztanleek Kong munstroa gurtzen dutela ohartzen dira. Are gehiago, Kongi herriko neskatxak eskaintzen dizkiote sakrifizio gisa. Bertakoek Ann eskaini nahi diote Kongi, horregatik, gauez bahitu egiten dute, eta aldare batera lotu. Kong liluratuta geratzen da Annekin, eta berekin eramaten du. Marinelak eta filmatze-lanetako kideak Ann askatzen ahalegintzen dira, baina uhartean, Kong-ez gain, historiaurreko izaki gehiago daude. Denham eta Annen maitalea den Driscoll bakarrik ateratzen dira bizirik erreskate-operaziotik. Denhamek gas-bomba bat jaurtitzen dio gorila erraldoiari, eta animaliak konortea galtzen du. Gero, katez lotuta eramaten dute New Yorkera, ikuskizun gisa erakusteko. King ezizena jartzen diote, baina gauzak ez dira espero bezala ateratzen: gorilak ihes egitea lortu eta Annen bila hasten da. Hura bere atzaparretan hartu, eta hiriko eraikuntzarik altuenera igotzen da, Empire Statera alegia. Armadako hegazkinek hiltzen dute gorila. Denhamek, ordea, garbi dauka: «ederrak hil du piztia».

Filmaren bertsio gehiago egin dira; ezagunenak, 1976an John Guillermin-ek zuzendutakoa eta, 2005ean *Eratzunen jaunaren* zuzendari Peter Jackson-ek egin zuena.

Hezur-haragizkoa ote?

Bertsioak bertsio, badirudi King Kongena ez dela kondaira hutsa. Ez dakigu 1933ko filmaren lehen bertsio hura ikusi zuen ala ez, baina kontua da 1935ean, Ralph von Koenigswald antropologoak ordura arte ezagutzen ziren primateena baino askoz handiagoa zen hagin bat topatu zuela Hong Kongeko botika batean. Aurkikuntza hartatik tiraka, espezie berri baten arrastoak aurkitu zituen Txina kontinentalaren barruan. Espezie berri hari *Gigantopithecus blacki* izena jarri zion. Inoiz izan den primaterik handiena zen. Hiru metro inguru neurtzen zuen, eta 600 kilo inguruko pisua zuen. Antza, duela 100.000 urte desagertu zen espezie hura. Horren arabera, gizakiekin batera bizi izan zen.

Baina zergatik desagertu zen espezie hori? Tubingan dagoen Giza Bilakaaren Senckenberg ikerketa-zentroko kideek erantzuna aurkitu dutelakoan daude. Berriki, *Quaternary International* aldizkarian ikerketa bat eman dute argitara, eta diotenez, primatea ez zen gai izan ingurumenean jazo ziren aldaketetara egokitzeko.



Ikertzaileek tximino erraldoi horren hortzetako esmaltea aztertu dute, haren dietari buruzko ondorioak ateratzeko. Eta ondorio azpimarragarriena honako hau da: belar-jalea zela. Hain handia izaki, janari mordoa beharko zuen elikatzeke. Horregatik, Txinako basoak sabana bihurtu zirenean, ez zen gai izan bere burua elikatzen jarraitzeko, eta desagertu egin zen.

Beste hipotesi bat ere badago: elurretako Yeti espezie horretako gorila bat izan litekeela. Antza, ez dute baztertzen espezie horretako ale batzuek altuera handiagoan bizirik iraun izana, Himalaian, esaterako. Horrek azalduko lituzke Yetiri buruzko kondairak.

Quo aldizkaria (moldatua)



Testua aztertzen

Informazioa jaso

- 1 Adierazi baieztapen hauek zuzenak ala okerrak diren, eta zuzendu baieztapen okerrak.
 - Carl Denham zinema-zuzendariaren asmoa uharte misteriotu haren mapa marraztea zen.
 - King Kongen lehen bertsio zinematografikoa 1935ean filmatu zen.
 - Uharte misteriotuko biztanleek herriko neskatxak eskaintzen dizkiote sakrifizio gisa Kongi.
 - Denham zinemagilea Ann Arrow-rekin maitemintzen da, eta berarekin ezkontzeko eskatzen dio.
 - Kong ez da uharteko izaki harrigarri bakarra.
- 2 Erantzun galdera hauei.
 - Nola gertatu zen primate espezie erraldoiaren aurkikuntza?
 - Aurkitutakoaren arabera, zer-nolako ezaugarriak zituen espezie hark?
 - Bada bestelako hipotesirik gorila erraldoiari buruz? Zein?
- 3 Zergatik desagertu zen *Gigantopithecus blacki* izeneko espeziea? Aukeratu erantzun egokia.
 - a) Ezin izan ziolako izozte-aroari aurre egin.
 - b) Gizakiek hil zutelako.
 - c) Elikadura kontuengatik.

Testua interpretatu

- 4 Zer esan nahi zuen Denhamek «ederrak hil du piztia» esaldiarekin? Azaldu.
- 5 Zertarako erabili ditu testugileak galderak testuaren hasieran eta bigarren atalaren izenburuan? Azaldu.

Testuaren egitura

- 6 Jarri ordena egokian gai hauek, testuaren arabera, eta adierazi zein paragrafotan azaltzen den bakoitza.
 - ☐ Zineman egindako beste bertsio batzuk.
 - ☐ Yetiren hipotesia.
 - ☐ Espeziearen desagertetaren arrazoia.
 - ☐ Hagin baten aurkikuntza harrigarria.
 - ☐ Denham, Arrow eta Kongen istorioa.

Hizkuntza-baliabideak


- 7 *Ikerketa-zentroko kideek erantzun aurkitu dutelakoan daude.* Iritzia emateko egitura da nabarmendutakoa. Berridatzi perpaus hauek egitura hori erabiliz.
 - Antropologoen iritziz, aurkitutako hagina antzinako espezie erraldoi batena da.
 - Ni banago laster desagertutako espezie gehiagoren arrastoak aurkituko dituztela.
 - Zinemazale askok esango lukete King-Kong mugarria dela zientzia-fikziozko filmen artean.
 - Zenbaitek uste du Yeti desagertutako espezie horretakoa dela.

Hausnartu eta azaldu

- 8 Zer-nolako filmak atsegin dituzu? Gauza harrigarriak erakusten dituztenak? Akziozkoak? Maitasunezkoak? Gai sozialak jorratzen dituztenak? Umorezkoak? Azaldu.
- 9 Zinemagintzan, animaliak beldurra sorrarazteko edo hunkitzeko erabili izan dira. Eman adibideak.
- 10 Zer-nolako jokabidea dugu gizakiok galtzeko arriskuan dauden animalia-espeziekin, eta oro har, naturarekin?



Izenaren inguruan. Izen motak



- 1 Osatu testu-pasartea, zenbatzaile egokiak aukeratuz, izenei erreparatuta.

PETER ETA WENDY

Denbora askoz/luzez, etsai biak elkarri begira egon ziren, Kako-okar apur bat dardarka, eta Peter, aldiz, irribarre arraro bat aurpegian. Begiak oroilorearen urdin berekoak zituen, malenkonia *handikoak/askokoak*, salbu eta kakoa sartzen zizunean; zeren une horretan puntu gorri bi agertzen zitzaizkion, modu ikaragarrian argi eginez. Zenbat eta kortesia *handiagoa/gehiago* erakutsi, orduan eta maltzurragoa izaten zen, eta horixe da, ziur aski, dotoretasunaren frogarik garbiena. Goxotasun *handiz/askorekin*, Kako-okerrekin lurrean utzi zuen kapa. Galdetu zuen irlan pirata *asko/handia* ote zegoen garai hartan, eta Peterrek esan zion sekula ez zuela hainbeste ikusi.

Peter Pan, J. M. BARRIE/JULEN GABIRIA (moldatua)

- 2 Sailkatu izen hauek taula honetan.

- ur
- sagar
- poz
- haize
- ke
- liburu
- indar
- olio
- hodei
- arroz
- ibai
- gatz



Izen zenbakarriak	Izen zenbakaitzak	
	Neurgarriak	Neurgaitzak

3 Osatu esaldiak, izenaren ondoan *bat/batzuk* zenbatzaileak edo *-a/-ak* artikulua erabiliz.

- Astoari belarri busti zitzaizkion.
- Manba beltza suge mota da.
- Entsaladari olio botako diot.
- Mesedez, hurbilduko al didazu gatz ?
- Kaletik nindoala, txanpon aurkitu nituen.

4 Aukeratu forma egokia, perpausak osatzeko.

- Txori txikia *zuhaitzetik/zuhaitzarengandik* erori zen.
- *Amonarengandik/Amonatik* ikasi nuen sukaldean.
- Nire *lagunetan/lagunengan* konfiantza osoa daukat.
- Bihar *medikura/medikuarengana* joan behar dut.
- Jarri kamera *aktoreetatik/aktoreengandik* gertu.



5 Deklinatu hitz bakoitza singularrean, pluralean eta mugagabea, deklinabide biziduna ala bizigabea eraman behar duen kontuan hartuta.

Hitza	Deklinabidea		
	Singularra	Plurala	Mugagabea
mendi (<i>nora/norengana</i>)	<i>mendirra</i>	<i>hango mendietara</i>	<i>zenbait menditara</i>
lagun (<i>nondik/norengandik</i>)			
irakasle (<i>nora/norengana</i>)			
lore (<i>non/norengan</i>)			
izeba (<i>norengan/norengandik</i>)			

Aditzaren inguruan. Osagarri zuzena eta zehar-osagarria

6 Lotu zatiak, perpausak eratzeko. Ondoren, azpimarratu osagarri zuzenak, eta inguratu zehar-osagarriak.

- | | |
|-------------------------------|--|
| Entrenatzaileak jokalariei... | • ...azterketak banatu zizkien. |
| Irakasleak ikasleei... | • ...gurpilak aldatuko dizkio. |
| Baserritarrek astoari... | • ...berotze-arietak eginarazi dizkie. |
| Mekanikariak bizikletari... | • ...ferra berriak jarri zizkion. |
| Lapurrek guri... | • ...margolana lapurtu digute. |

7 Osatu perpausak, osagarri zuzen hauek erabiliz.

- ederra dugu; ikusten dira.
- Barkatu , galdu dut-eta.
- Piztu , galdu baitut.
- sartu dut, eta irabazi dugu.

argia izarra belarritakoa
atzerapena Gaugiro trenea
gola partida





- 8 Identifikatu osagarri zuzena, eta ezkutuan dagoen zehar-osagarria.
- Idatzitako ipuinagatik saria eman didate. Osg. Zuz. → *saria* ; Zehar-osg. → *Niri*
 - Atzo telefonoa lapurtu zidaten.
 - Gezur galanta esan didazu.
 - Bihar itzuliko dizkizut diskoak.
 - Txikitan, giltzak lepotik zintzilikatzen zizkiguten.

- 9 Lotu subjektuak, osagarri zuzenak eta zehar-osagarriak modu egokian, eta idatzi esaldiak.

Albaitariak •	• hanka •	• jokalariei
Saltzaileak •	• aginduak •	• txakurrari
Otsoak •	• produktuak •	• ardiei
Entrenatzaileak •	• gezurra •	• erosleei
Ikasleek •	• hortzak •	• irakasleari

- 10 Osatu perpausak, osagarriak gehituz.
- Futbol jokalaria... → *gola sartu dio atezainari*.
 - Arrantzaleek atzo...
 - Lore gaineko erleak...
 - Margolari horrek...
 - Orkestrako musikariek...

Perpausak josten. Juntadura I



- 11 Lotu zutabeak juntaduraz elkartutako perpausak osatzeko.
- | | |
|-----------------------------|--------------------------------------|
| Bai klean, bai etxean... | • guztiok batera egiten dugu arraun. |
| Nor oinez, nor autoz... | • ez gogorik zinemara joateko. |
| Ez dut ez dirurik... | • gaur oso goiz esnatu naiz. |
| Lotara noa; | • jende asko etorri da azokara. |
| Hala neskak nola mutilak... | • euskaraz bizi nahi dut. |

- 12 Osatu testua, egitura hauek erabiliz. Zenbait aukera daude zuzen.

bai..., bai... zein..., zein... hala..., nola... ez..., ez... nolako..., halako...

HITZAURREA

Baserritarrei, Iparraldean, Hegoaldean ezaguna zaie nire zakurzale-tasuna. Zakurrak iraunkorrak dira maitasunean, etsaigoan. hotzak, bustiak ez diote zakurrari erasango. Gaur askatzen dituzte Deustuko Unibersitateko zakurrak. Eta handik campus osoa ikusten dute, itsaserreka aldera jotzen duen zabaldia, aroztégian gora doan bidea.

Adiskidetasuna eta maitasuna, ahal izanez gero, on dira bai pertsonen artean, eta bai animalien artean ere. Eta berriz ere esan behar: nagusia, zakurra.

Zakurra, zeure laguna. GOTZON GARATE (moldatua)

13 Berridatzi perpausak, alborakuntzaren bidez, eta parentesiko egiturak erabiliz.

- Eskuz zein palaz, oso ondo jokatzen du pilotan. (*bai... bai...*)
- Mendian edo hondartzan, kirol asko egiten dugu. (*hala... nola...*)
- Izan egunkaria, izan liburua, irakurtzea osasuntsua da. (*dela... dela...*)
- Batzuk abesten, beste batzuk gitarra jotzen, itzel pasatu genuen. (*nor... nor...*)

14 Lotu zatiak, juntaduraz eratutako atsotitz hauek osatzeko.

- | | |
|----------------|------------------|
| Zer ikusi,... | • ...hura izan. |
| Non gogoa, ... | • ...hura ikasi. |
| Nola erein,... | • ...han zangoa. |
| Zer jan,... | • ...hala bildu. |

Bilatu goiko atsotitzen esanahia, perpaus hauen artean.

- Gauzak ondo egiten badituzu, emaitza ona izango duzu. →
- Ikusten duguna egiten ikasten dugu. →
- Gure elikadurak geure buruarengan eragiten du. →
- Saiatuz gero, edonora irits gaitzke. →


15 Lotu perpausak, alborakuntzaren bidez, eta parentesiko egiturak erabiliz.

- Gustuko ditut txakurrak. Txikiak, handiak... denak ditut gustuko. (*nahiz... nahiz...*)
- Surfean eta saskibaloian aritzen da. Kirolari trebea da. (*dela... dela...*)
- Maider bi hizkuntzatan ondo moldatzen da. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten badaki. (*hala... nola...*)




→ EGITEN JAKIN

Atsotitz berriak asmatzea



- 1 Asmatu atsotitz berriak, alborakuntza erabiliz, ondoko adibideak eredu hartuta. Horretarako, hasiera hauen jarraipena asmatu ahal duzu, edo nahieran egin.



✓ Gogoratu atsotitzetan errimak eta hitz-jokoak ohikoak direla.



Eztabaida: animaliak, gizakien pare?

Otsoa, abeltzainen amesgaiztoa



Azken hilabeteen erasoak areagotu egin direla azaldu dute Karrantzako inguruko abeltzainek. Diotenez, 150 abere inguru hil dituzte otsoek urtebeteen. Joni Sainz abeltzainak bere ardura plazaratu du: «Ardi batek 120 euro balio du gutxi gorabehera, atera kontuak».

Abeltzainak babestu asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman du otsoen ehizaldia egiteko.

Isildu egin dira Euskal Herriko uluak



Euskal Herriko otso talde ugalkor eta egonkor bakarra hil dute Karrantzan. Erabakia «oso larria eta ulertezina» dela adierazi du Euskadiko Otso Taldeak. Gainera, haien arabera ez dago batere argi hilda agertu diren abere guztiak otsoen erasoen ondorioz hil diren. «2010ean zortzi eraso gertatu ziren. Soilik hiru izan ziren otsoek egindakoak. Beste guztiak txakurrek egin zituzten».



- 1 Bal al zenuen Karrantza inguruan gertatutakoaren berri? Bilatu Interneten otsoek egindako erasoen inguruko informazio gehiago.
- 2 Irakurri lehen albisteko pasartea berriz. Zer iruditzen zaizu Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabakia?
- 3 Bigarren albistean, Euskadiko Otso Taldea erabakiaren kontra azaldu da. Zer argudio eman ditu? Ados al zaude?
- 4 Eztabaidatu denen artean bi adierazpen hauen inguruan. Nork esan du bakoitza? Zeinen aldekoak zarete?
 - a) «Abeltzainek otsoen erasoak eragotzi behar dituzte: ganadua zaindu, gauetan itxituran bildu... baserritar askok jokabide erosoegia dute».
 - b) «Inguru honetan ez daukagu industriarik, eta asko gara abeltzaintzatik bizi garenak. Irtenbide bat behar genuen».
- 5 **LAN KOOPERATIBOA.** Banatu ikasgela bi taldetan. Denok zaudete natura babestearen alde baina badira desberdintasunak.

Gaia: Natura eta gizakia. Zer lehenago?

- Denon artean otsoen erasoen antzeko kasuak aipatuko dituzue, eztabaidan heldulekuak izan ditzazuen.
- Talde batek gizakiaren interesa eta ongizatea naturaren gainetik daudela defendatuko du, arrazoiak emanez. Beste taldeak, natura ukiezina dela azpimarratuko du.

ENTZUTEKO TESTUA

★ Adoptatu galgo bat

Galgoak Euskal Herriko kaleetan ikustera ohitzen ari gara. Galgo txakurrak ehizarako eta lasterketetarako erabili den txakur mota da. Askotan, galgoen jabeek abandonatu edo hil egiten dituzte balio ez dietenean.

Hori dela eta, hainbat elkarte eta lagun galgoen defentsan atera dira, haiek babesteko eta adoptatzeko.



- ★ 1 Entzun *Adoptatu galgo bat* eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.
 - Galgo Leku elkarte bizi baldintza eskasetan dauden galgoak jasotzen dituen irabazi asmorik gabeko elkarte da
 - Abandonatzen dituzten arte, galgoen jabeek oso ongi zaintzen dituzte txakurrak.
 - Gaztela, Andaluzia eta inguruetako herrialdeetan galgoak abandonatzeko kultura oso zabalduta dago.
- ★ 2 Deskribatu galgo bat adoptatzeko prozesua.
- 3 Kopiatu, testuaren arabera, galgoen izaerarekin bat datozen ezaugarriak.

• etxezaleak	• moldakorrak	• erasokorrak	• urduriak
• territorialak	• maitagarriak	• lasaiak	• zaunkariak
- 4 Eztabaidatu ikaskideekin.
 - Gero eta zabalduegoa dago animaliekiko indarkeriaren aurkako kontzientziazioa (beganismoa, zezenketak, ahari eta oilar jokoak...). Zergatik dela uste duzue?



Entzun ahala



- Idatzi, entzun ahala, ideia garrantzitsuenak.
- Erreparatu testuan aipatzen diren galgoen ezaugarriak.

➔ EGITEN JAKIN



Idazlan luzea

Animalia basatiak gatibutzan



- 1 Idatzi 180-200 hitzeko idazlan bat gai honen inguruan: «Animalia basatiak gatibutzan». Idazlanak hiru puntu hauek bildu behar ditu.
 - Animalia basatien gatibutza motak: zoologikoa, zirkua eta ikerketa zientifikoa.
 - Gatibutzak zer onura dakarkion animalari, baldin badakarkio.
 - Gatibutzak zer onura dakarkion gizakiari, baldin badakarkio.
- Idazlana ixteko, eman zure iritzia.

Onomatopeiak eta esanahi motak

ONOMATOPEIAK

Soinu bat imitatzen duten hitzak edo hitz taldeak dira onomatopeiak. Horien adibide dira **tas-tas**, **dinbi-danba** edo **plisti-plasta** bezalakoak. Animalien soinuak adierazteko ere, onomatopeiak erabiltzen dira. Onomatopeien mundua oso berezia da: hizkuntza guztietan existitzen dira, baina bakoitzak bereak ditu. Hala, esate baterako, txakurrak euskaraz **zaunk-zaunk** egiten du, baina beste era batera egiten du hizkuntzaren arabera: **guau-guau** (gaztelaniaz), **haw haw** (arabieraz), **wang wang** (txineraz), **ouah ouah** (frantsesez), **bow bow** (ingelesez), **wau wau** (alemanez)...

Askotan haur txikiei hitz egiterakoan erabiltzen ditugu onomatopeiak, baina, horretaz aparte, komikietan, ipuinetan eta eleberrietan ere azaltzen dira.



HITZ ONOMATOPEIKOAK

1 Aukeratu hitz hauetako bakoitzari dagokion definizioa.

esamesa irristatu kilima zirimiri ulu

- Gainalde leun batean herrestan joan, labaindu:
- Oihu zoli eta luzea:
- Larruazalean egindako ukaldi arin eta errepikatuez gorputzean eragiten den zirrara, irri dardartia ekartzen duena:
- Euri lanbroa; tanta guztiz xeheetan erortzen den euria:
- Egiazko edo alegiazko berria, norbaiti kalte egiteko aipatzen dena:

2 Lotu. Zer egiten dute animalia hauek?

- | | |
|-------------|-----------------|
| oilarrak • | • txorrotxio |
| txerriak • | • trosta |
| lehoiak • | • kurrin-kurrin |
| txoriak • | • kir-kir |
| kilkerrak • | • kukurruku |
| zaldiak • | • orro |

3 Komikietako burbuletan ager litezkeen onomatopeiak dira honako hauek; lotu itzazu dagozkien egoerekin.

talan-talan dzanga-dzanga kas-kas bor-bor atx!

- Norbait trago bat hartzen, zurrut egiten:
- Norbait ate-joka:
- Norbaitek min hartu du:
- Ura irakiten ari da lapikoan:
- Kanpaiak jotzen ari dira:

KONNOTAZIOA ETA DENOTAZIOA

4 Lotu ezkerreko esamoldeak eta haien esanahia.

- | | |
|----------------|--|
| nagiak atera • | • Guztiz larri ibili. |
| adarra jo • | • Txantxetan aritu. |
| adarra jo • | • Haserre bizian jarri. |
| odola berotu • | • Giharrak tinkatuz, besoak eta zangoak zabaldu. |

5 Irakurri bi esaldi pare hauek, eta adierazi zer adiera duten nabarmendutako hitzek: berezkoa ala irudizkoa.

- Aspaldi ez dut *gibela* jan; oso ona omen da osasunerako.
- Horrek du *gibela*, horrek!
- *Malda-gora* egiten zaio goizero ohetik jaiki beharra.
- Txindoki bidean *malda-gora* zihoala ateratako argazkia da.

6 Osatu esaldiak hitz hauek erabiliz.

beltza erroak berde sarean

- Panorama dugu aurrean, baina ez dugu etsiko.
- Gaur egun dena egin liteke : kontsultatu, ikasi, erosi, jendea ezagutu...
- Euskal Herrian ditu , eta Italian, bihotza.
- Aspaldiko kontua da hori, gazte eta nintzenekoa.

7 Aurkitu irudizko adieraz erabilitako hitzak honako esaldi hauetan.

- Harrituta gelditu da nola zauden ikusita.
- Oso neska argia da: egoerak zorrotz aztertu, eta ondorio mamitsuak ateratzen ditu.
- Leher eginda nago; gaurko partida erabakigarria zen.
- Gehiegi estutzen ari dira emakume hori; argi dago ez dakiela ezer.

Zenbakien idazkera eta puntuazioa

- 1 Bete testuko hutsuneak azpiko zenbaki eta puntuazio-zeinuekin.

LOTERIA

Madrilen saldu da loteriako saria, Leganesen –bi milioi euro serieko . Bigarren sariaren zati bat Bizkaian egokitu da. Bizkaiko hiriburuan eta Abadiñon saldu da serieko mila euroekin saritutako 43.743 zenbakia.

saria, berriz 84.222 zenbakiarentzat izan da. Portugaleten saldu dituzte zenbaki horietako batzuk, serieko mila eurotan sarituak. Oso pozik gaude" adierazi dute saritutakoek.

EAEn euro gastatu ditu herritar bakoitzak loteria erosten.

- | | | | |
|-----|--------------|-------------|----------------------------------|
| • " | • Hirugarren | • lehenengo | • zazpiehun eta berrogeita hamar |
| • – | • , | • hogeina | • berrehun eta berrogeita hamar |



ZENBAKIEN IDAZKERA

- 1 Adibidean bezala, berridatzi zenbaki hauek letrekin.

- 14: *hamalau*
- 97:
- 144:
- 352:
- 1.231:

- 2 Adibidean bezala, lotu bi zutabeak.

- | | |
|-----------------------|----------------------------|
| XXI. mendea • | • bosgarren mendeurrena |
| seigarren solairuan • | • hogeita batgarren mendea |
| 31n • | • 6. solairuan |
| 7. argitalpena • | • hogeita hamaikan |
| V. mendeurrena • | • zazpigarren argitalpena |

- 3 Adibidean bezala, moldatu esaldiak *-na* atzizkia erabiliz.

- Bakoitzak esaldi bat idatzi behar du.
→ *Esaldi bana idatzi behar dute.*
- Bakoitzari bi txanpon eman.
- Jonek eta Anek hamasei urte dituzte.
- Bakoitzak berrehun metro egin behar ditu.
- Bakoitzari hamar fitxa tokatu zaizkio.

- 4 Osatu perpausak hitz-forma zuzena aukeratuta.

- (Bosgarren/Bostgarren) solairuan bizi naiz.
- Etxetik hona (zazpiehun/zazpirehun) metro daude.
- Aitak (berrogei eta sei/berrogeita sei) urte ditu.
- (Zenbatgarren/Zenbagarren) urteurrena da?

PUNTUAZIOA

- 5 Lotu. Zer adierazteko balio dute puntuazio-marka hauek?

- | | |
|--------------------|------------------------|
| Ane etorri da. • | • Poza, sorpresa... |
| Ane etorri da? • | • Informazio neutroa. |
| Ane etorri da! • | • Galdera |
| Ane etorri da... • | • Harridura |
| Ane etorri da?! • | • Kezka; itxaropena... |

- 6 Esan egia ala gezurra diren.

- Galdera-ikurra tarterik utzi gabe lotzen zaio hitzari.
- Eten-puntuak bi, hiru edo lau izan daitezke.
- Bi puntuen ondorengo hitza beti idazten da maiuskulaz.
- Posible da koma agertzea galdera-marka baten ondoren.
- Posible da koma agertzea eten-puntuen aurretik.

- 7 Zuzendu puntuazio-markekin lotutako akatsak.

- Ederki ! Ea bihar joaterik dugun....
- Garaiz etorri da; Beraz, hari galdetuko diogu.
- Martinek galdetu zuen, nora joan da Miren.
- Han agertu ziren Mikel, Ane, Imanol, Eli,...

- 8 Zertarako erabiltzen dira komatxoak? Esan zein den okerra.

- Hitzez hitzeko aipamenak egiteko.
- Beste hizkuntza batetik hartutako terminoa markatzeko.
- Hitz bat ironiazko zentzuan erabili dela adierazteko.
- Izengoitiak markatzeko.
- Hitz bat euskalki batekoa dela adierazteko.
- Izenburuak markatzeko.

 Eleberria


Olagarroak!

Conseili begira ari nintzela, kanadarra argi-zulo-rantz joan zen korrika.

–Animalia nazkagarria, benetan! –oihu egin zuen. Begiratu egin nuen neuk ere, eta ezin izan nuen higuin-keinua ito. Munstro izugarria nuen begien aurrean.

Zortzi metro inguruko olagarro erraldoia zen, eta abiadura handiz mugitzen zen, atzerako mugimen-duak eginez; *Nautilus*erantz zetorren azkar, begiak bertatik kendu gabe.

Buruaren azpiko zortzi besoak gorputza baino bi aldiz handiagoak ziren. Garroen barrualdeko berrehun eta berrogeita hamar bentosak argi ageri ziren; kapsula biribilen antza zuten.

Munstroaren ahoa, papagai baten ahoaren antzekoa, bertikalean irekitzen eta ixten zen. Mihia, adarkizkoa eta hortz zorrotzez armatua, dardarka ateratzen zen aliketa ikaragarri haietatik.

Gorputza, luzanga eta sabeldua erdialdean, hogeimila kilotik hogeita bost milara bitartekoa izango zen. Kolorea oso bizkor aldatzen zuen, haserre-mailaren arabera, eta gris argitik nabar gorrixkara igarotzen zen.

–Alektion itsasontzikoa izan daiteke. Nork jakin?

–Ezin daiteke izan –esan zuen kanadarrak–. Hau osorik dago, eta hark gorputzaren erdia galdu zuen.

–Ez dio axola –erantzun nion–. Animalia hauek besoak eta gorputza birsortzeko gauza dira, eta zazpi urteren barruan, osorik daude berriz ere.

–Berdin dio –erantzun zuen Nedek–; bera ez bada, antzekoren bat izan daiteke.

Beste olagarro batzuk agertu ziren. Zazpi zenbatu nituen. Denak zihoazen *Nautilus*en ondoan, eta haien hortzek karranka egiten zuten, altzairu blindatuan irrist egitean. Bat-batean, talka gogorra nabaritu genuen, eta gelditu egin ginen. Ez zen helizearen hotsa entzuten.

Hogei mila legoako bidaia itsaspetik
Jules Verne (moldatua)



1 Irakurri testua eta erantzun galdera hauei:

- Zer da *Nautilus*? Non daude istorioko protagonistak?
- Zer garaitan kokatuko zenuke? Argudiatu.

2 Aukeratu zerrendatik irakurritako testuari dagozkion lau ezaugarri. Ondoren, adierazi zer eleberri mota den (zientzia-fikziozkoa, abenturazkoa, erromantikoa, beltza...).

- ☐ Protagonistek ekintza ugari bizi dituzte.
- ☐ Urrutiko leku edo leku arriskutsu batean gertatzen da.
- ☐ Amodioa da istorioaren funtsa.
- ☐ Protagonista detektibe bat da.
- ☐ Pertsonaiak ausartak dira.
- ☐ Protagonistek aurkariak dituzte.

3 Erreparatu testuko pertsonaiei eta istorioari, eta erantzun galdera hauei. Arrazoitu zeure erantzunak.

- Zenbat pertsonaia ageri dira?
- Nork kontaktzen du istorioa? Protagonistetako bat da ala kontatutako gertaeretatik kanpo dago? Lehen pertsona ala hirugarren pertsona idatzita dago?
- Zure ustez, sinesgarria da istorioan kontaktzen dena? Zergatik?


4 Eleberriek elementu ugari izan ohi dituzte: elkarrizketa luzeak, istorio txikiak istorio nagusiaren barnean, deskribapenak... Testu honetan, zein paragrafotan azaltzen da deskribapena? Zerrendatu bertan ageri diren izenondo guztiak.

Kazetaritza-elkarriketa



«Txakurra da lasterketako liderra eta irabazlea, ez ni»

Txakurkrosa arau zorrotzak, txapelketak eta milaka jarraitzaile dituen kirola da. Gurean bada goi mailan aritzen den lasterkari gazte bat: Leire Fernandez (1998) erreteriarra.



Munduko Txakurkros Txapelketa eskuratu berri duzu junior kategorian. Lan gogorraren emaitza izan da?

Euskal Herritik irten eta Munduko Txapelketan aritzea erronka bat izan da niretzat, eta espero baino

hobeto joan da. Hala ere, Bolt –txakurra– da lasterketako liderra eta irabazlea, ez ni.

Txakurkrosean hasi aurretik mendiko lasterketak egiten zenituen. Nola eman zenuen pausoa?

Haurra nintzenetik ibili izan naiz mendian. Halako batean, Jaizkibelgo Txakurkrosa iragartzen zuen kartel bat ikusi nuen kalean, eta aitarekin hitz egin nuen txakur bat lortu eta parte hartzeko.

Zer duzu nahiago, bakarrik ala txakurrarekin lasterka egitea?

Normalean sokarik gabe entrenatzen dut, baina oso gustura ibiltzen naiz txakurrekin.

Zer-nolako ezaugarriak ditu Boltek probetan horren ongi aritzeko?

Oso txakur ona da, nigatik dena ematen du. Igoeraren batean nekatuta egon arren nik gehiago eskatzen badiot, nekea albo batera utzi eta gogor tiratzen du.

Zuen arrakastaren sekretua bion arteko elkar ulertzea omen da...

Hori da kirol honen oinarria, txakurrak eta korrikalariak talde bakarra osatu behar dute.

Nola moldatzen zara ikasketak eta probak uztartzeko?

Ez dut ikasketak normaltasunez eramateko arazorik. Atzerrira joaten garenean, bidaia aprobetxatzen dut etxeko lanak egiteko. Horregatik, gazteak txakurkrosa probatzera animatzen ditut. Irabaztea gutxienekoa da, txakurrarekin eta nork bere buruarekin disfrutatzea da garrantzitsuena.

Maialen Goñi
Gaztezulo aldizkaria (moldatua)

- 1** Adierazi esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren. Argudiatu zeure erantzunak.

- Txakurkrosa zaletasun hutsa da Leirentzat, ez baitago beste kirolari batzuen aurka lehiatzeko txapelketarik.
- Aitak eman zion txakurkrosetan aritzeko ideia.
- Txakurkrosak ez dio ikasketak eta probak uztartzea eragozten.

- 2** Erantzun galdera hauei:

- Testuaren hasieran, gainerako testutik bereizita dauden bi lerro ageri dira. Zergatik? Zer kontatzen da bertan?
- Elkarriketan, esaldi batzuk letra lodiz idatzita daude. Zer dira? Zergatik jartzen dira modu horretan?

- 3** Lotu galdera bakoitza dagokion galdera motarekin.

- | | |
|--|--|
| a) Nola moldatzen zara ikasketak eta probak uztartzeko? | • Gai batez duen iritzia jakiteko galdera. |
| b) Zer ezaugarri izan behar ditu txakur on batek txakurkrosean aritzeko? | • Galdera pertsonala. |
| c) Zuen arrakastaren sekretua bion arteko elkar ulertzea omen da... | • Galdera profesionala. |

- 4** Izenburuak interesgarria izan behar du, irakurlearen arreta bereganatzeko. Zer deritzozu elkarriketa honen izenburuari? Zer beste izenburu proposatuko zenuke?

Erdi Aroa: eresia eta erromantze epikoa

1 Garai iluna?

Erdi Aroa garai iluna eta iskanbilatsua izan zela esan ohi da. Dena dela, historiako beste aldietan legez, mende hauetan, aurrerapen garrantzitsuak izan ziren gizartean eta kulturaren.

Historialarien artean eztabaidak daude Erdi Aroaren mugak ezartzeko. Orokorrean, Europako mendebaldean, garai hau **V. mendean hasi** zela esan daiteke eta **XV. mendean amaitu**.

Erromatarren inperioaren gainbeherak Europan erresuma txikien sorrera ekarri zuen. V.-VII. mendeetan, Euskal Herriaren iparraldean, **Akitanian**, erresuma indartsua eratu zen, adibidez.

Nafarroako erresuma

VIII. mendean musulmanak iberiar penintsulan sartu ziren eta lurralderik gehienetara zabaldu zuten Kordobako kalifa-herria. Garai honetakoak dira historiarik jasotako lehen euskal buruzagien aipamenak, Banu Qasitarrek eta Eneko Arista, adibidez.

778ko abuztuaren 15ean Karlomagnoren tropen aurka egin zuten baskoiek eta **Orreagako gatazkan** garaitu. Pasarte historiko hau Erdi Aroko testuetan Errolanen kantuan agertu zen azalduta frantsesez eta Orreagako kantuan nafar erromantzez.

X. mendean **Nafarroako erresuma** guztiz antolatuta agertzen da. Antso III. erregearen agintaldian euskal lurralde guztiak Gaztela, Aragoi eta beste hainbat inguruko lurralde hartu zuen bere agintepean.

XIII. mendetik aurrera, Nafarroaren iparraldeko eta hegoaldeko beste erresuma batzuk nagusitu ziren, lurrik gehienak bereganatuz. 1463an, Frantziako Luis XI.ak eta Gaztelako Henrike IV.ak Nafarroako erresuma partekatzea erabaki zuten.

2 Erdi Aroko gizartea eta kultura

Erdi Aroak berritasunak ekarri zituen gizartearen antolakuntzan. Erromatarren garaian ez bezala, botere politiko eta administratiboa **sakabanatu eta zatikatu** egin zen.

Leinuak erresuma bihurtu ziren, gudu eta gatazken iturri handi bihurtuz. Leinu txikiak eta familiak alde bateko edo besteko buruzagien inguruan batzen ziren eta, askotan, taldeen arteko liskarrak ugariak izaten ziren. Liskar horiek beren isla izan zuten garaiko artean eta literaturan.

Kultura Erdi Aroan

Kulturgintza, oro har, **elizaren eskuetan** zegoen. Monasterioetan bibliotekak eta agiritegiak eratu ziren, eta hezkuntza-sare bakarra osatu zen. Gure artean **Done Jakue bideak** eragin handia izan zuen, Europaren beste eskualdeetatik zetozen berritasun kultural, literario eta teknologikoak zabaldu baitzituen.

Erdi Aroko literaturan herrien, buruzagien eta gerlari ospetsuen laudorioa egiten zuen **epika** nagusitu zen. Okzitania inguruan moldatu ohi ziren amodiozko olerkien **eredu gortesauak** ere arrakasta handia izan zuen. Horiekin batera, **erlijio-literaturak** pisu handia izan zuen garai horretan.



Erdi Aroaren hasieran bertan botere politikoak eta kristau elizaren erakundeak bat egin zuten batak besteari sostengu ideologikoa, politikoa eta materiala eskainiz. Era berean, pareko hierarkiak ezarri ziren, goitik behera antolatuta, piramide gisa, gizartearen eta elizaren egituretan.




Errolanen heriotza
(Jean Fouqueten irudia, c. 1455-60)

3 Erdi Aroko eredu epikoa

Euskaraz emandako hizkuntza-lekukotasunak oso urriak izan dira XVI. mendera arte. Aipagarrienak dira Erdi Aroko testu solte txikiak eta garai harekin lotutako **kronika eta literatura-bildumetan** bildu ziren lekukotasunak. Testu gehienak ahozko tradizioan kokatu behar dira, belaunaldi belaunaldi, ahotik belarrira igaro zirelako paperean idatziz jaso arte.

Hauek dira garrantzitsuenak:

- Alde batetik **eresiak** ditugu, hau da, norbaiten heriotzaren kariatara kantari batek –askotan emakume batek– kantatutako laudorio bertsoak. Bertso hauek, behin baino gehiagotan, boteretsuen, gizarteko gorabeheren edo elizako kideen kritika egiten zuten. Horregatik, XV. mendetik aurrera lege debekatu zituzten. Kantu-eredu horien adibide dira *Milia Lasturkoren eresia*, *Pedro Abendañoren kanta*, *Ahetzeko anderearen kanta* eta abar.
- Beste alde batetik, aipamen historikoak egiten dituzten **erromantze epikoak** edo **baladak** ditugu. Gehienetan Erdi Aroko leinu edo bandoen arteko gatazkak azaltzen dituzte: ganboarrak oinaztarren aurka, agaramontarrak beaumontarren aurka... Erromantze batzuetako istorioak ilun samarrak dira, zatiak falta dituztelako edo informazio urria ematen dutelako. Horien artekoak dira *Beotibarko guduaren kantua* eta *Arrasateko erreketak*. Beste erromantze batzuk, aldiz, osorik heldu zaizkigu eta haietan leinuen arteko istorio lazgarriak kontatzen dira, *Bereterretxeren kantoria* eta *Alostorrea* baladetan, adibidez.



JAKIZU



Karlos, Vianako Printzea, beaumontarren burua Nafarroan XV. mendean

Sarri askotan, aho-literaturari kronologia jartzea ez da erraza, eredu zaharrak erabiliaz batera eguneratu egiten direlako, baina gauza adostua da XIX. eta XX. mendeetako literatura-biltzaileek oso eredu zaharrak bildu zituztela.

ARIKETAK

1 Adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.

- Erdi Aroa kulturalki garai iluna eta atzerakoia izan zen.
- Garai horretako antolakuntza soziala kideen berdintasunean oinarritzen zen.
- Erdi Aroan, laudoriozko epika, amodiozko olerki gortesauak eta erlijio-literatura nagusitu ziren.
- Done Jakue bidea garrantzitsua izan zen euskal literatura munduan zehar zabaltzeko.

2 Egin ikerketa.

- Euskarazko zein esaldi ageri dira Donemiliaga Kukulako glosetan?
- Non azaltzen da Aimery Picauden hitz-zerrenda? Zer kontatzen da lan horretan?

3 Lotu zutabe bateko hitz bakoitza beste zutabeko hitz batekin.

- kulturgintza
- Milia Lasturko
- Alostorrea
- erromantzeak
- Karlomagno

- Errolan
- bando edo leinu-gerrak
- eresia
- Elizaren esku
- erromantzea

4 Egin gogoeta.

- Zergatik azaltzen da goiko denboraren lerroan hiru aldiz Nafarroa? Zer adierazten du zure ustez?
- Zergatik dira, zure ustez, hain urriak Erdi Aroko arte euskaraz jaso ditugun testu idatziak?

Milia Lasturkoren eresia


Arrasaten, Milia izeneko emakume ezkongabea haurra erditzean hil zen. Dirudienez, Peru Garziak ezkontzeko hitza emana zion baina ez zuen tratua bete eta Marina Arrazolakorekin ezkontzekotan zebilen. Hileta egunean, Debako Lasturretik etorritako ahizpa batek kopla hauek kantatu zituen Miliaren gorpuaren aurrean. Kantuan Lasturrera bueltatzeko eskatzen zion Milia ahizpa hilari, aitak-amak hilobiratzeko zain zituela esanez.

*Zer ote da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardoa gorria.
Alabaina, kontrario da Milia:
Azpian lur hotza, gainean harria.*

*Lasturrera behar duzu, Milia.
Aitajaunak eresten¹ du elia²,
amandreak apainketan hobia.
Hara behar duzu, Milia.*

*Jausi da zerurean³ harria,
aurkitu du Lasturren torre berria,
edegi dio almenari erdia.
Lasturrera behar duzu, Milia.*

*Arren, ene andre Milia Lasturko,
Peru Garziak egin digu laburto⁴:
egin du andre Marina Arrazolako.
Ezkon bekio, bere idea dauko.*



JAKIZU



Esteban Garibai
(Arrasate 1533-Madril 1599)

Bere garaian historialari ospetsua eta Felipe II.a erregearen kronikari izan zen. Euskal atsotitzen bilduma anonimo bat, 1596ko *Refranes y sentencias*, osatu zuen, eta beste euskal testu labur batzuk aipatu zituen, besteak beste *Milia Lasturko* eresia.

- 1: prestatu
2: azienda, abereak
3: zerutik
4: maltzurkeria

ARIKETAK

1 Aukeratu. Zer esan nahi dute hitz hauek?

- andra erdia
 - ☐ anderearen erdia
 - ☐ haurra izan duen anderea
- Lasturrera behar duzu
 - ☐ Lastur gogoan izan behar duzu.
 - ☐ Lasturrera etorri behar duzu.
- aitajaunak
 - ☐ aitak
 - ☐ jaunak
- amandreak
 - ☐ amak
 - ☐ andreak
- elia
 - ☐ hitza
 - ☐ abere-taldea
- edegi dio
 - ☐ egin dio
 - ☐ ireki dio



2 Eztabaidatu denen artean lehen ahapaldiaren esanahia.

Zer ote da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardoa gorria.
Alabaina, kontrario da Milia:
Azpian lur hotza, gainean harria.

3 Adierazi zein den pasarte honetan agertzen den baliabide literarioa eta azaldu irakurtzean sortzen duen efektua.

Lasturrera **behar duzu, Milia.**
(...)
Hara **behar duzu, Milia.**
(...)
Lasturrera **behar duzu, Milia.**

➔ EGITEN JAKIN



Omenezko olerkia edo oda sortzea



MERETRIZ HILA

*Ile horiko eme oparo:
gure gurariz hilikan hago.
Hilotza:
ostu dinagu bihotza!
Ikusi haugu biluts-bilutsean,
larra lotsean,
eme giroko bipil hutsean.
Gaur gorputz datzan,
mila begien izormen latzan,
nahi dastakorrak duen
baratzen...
...
Hilzorian guk jarri haugu
mila losintxa, mila balaku.
Nazkatu haiz eta
kendu dun bizia.*

*Pastillak irentsi, ahaztu guzia.
Erabaki dun hire auzia...
Hartu dun betiko egun luzia!
Eme oparo:
guk eraginda hilikan hago.
Meretriz opari triste.
Ez hintzen haurdun;
guztiekiko bidean jardun...
Egigun barka.
Nire bihotza dun deiadarka.
Meretriz hila:
Hiretzat dinat otoitz isila:
«Betozeruko birjinen sailak
gaur hire bila!».*

Juan Mari Lekuona

1 Aukera ezazu hildako pertsonaia ezagun bat (pertsonaia historikoa, politikaria, aktorea, artista...).

- Lor itzazu pertsonaiari buruzko datuak: non jaio zen, nolakoa zen, zer egin zuen, nola/zeratik hil zen,...
- Egin ezazu hildako pertsona horri buruzko omenezko olerkia edo oda. Erabili bildutako datu eta ezaugarriak, hura laudatzeko.
- Idatz ezazu (eskuz edo ordenagailuz) olerkia orri batean eta jar iezaiozu izenburua.
- Bil itzazue, nahi baduzue, ikasgelako olerki guztiak eta molda ezazue omenezko olerkien antologia bat.



Argitara itzazue ikasgelako olerki guztiak sarean, gelako blogean, webgune batean edo ikastetxeko web orrian. Erabil ezazue argitalpen digitalerako tresnaren bat: Issuu, Glosi...



IRAKURMENA

- 1 Irakurri ondoko testua, eta erantzun galderei.

Bizi-bizirik

Posible al da desagertutako espezieak berriz ere bizi-zen artera ekartzea? Posible al da gaur egun bizi-bizirik ikustea? *Jurassic World* filmean dinosauroak halaxe ageri ziren, bizi-bizirik, klonatuak izan zirelako. Ezinezkoa? Zientzialari askoren ustetan, desagertutako animaliak berriz lurrean ibiltzea denbora kontua baino ez da.

Desagertutako animalia bat klonatzeko, haren enbrioia eraman eta erditzeko gai den antzeko espezie bateko emeaz gain, ia guztiz osorik dagoen DNA behar da ezinbestean. Horregatik, espezie batzuk izan-gai hobeak dira besteak baino. Esaterako, duela gutxi desagertu eta museoetan kontserbatu diren animaliak edota azken izotz-aroen permafrostean gorde direnak apropos-aproposak dira.

Desagertu zirenetik denbora asko igaro, eta kontserbazioa primerakoa izan ez denez, dinosauroak ez dira egokiak klonaziorako. Beraz, parke jurasikoa filmetako kontua da, bizitza errealekoa baino areago. Hala ere, Pleistozeno aroko parkea, sable-horzdun tigre eta mamut iletsu eta guzti... Tira, zergatik ez?



- Zer behar da desagertutako animalia bat klonatzeko?
- Dinosauroak zergatik ez dira egokiak klonaziorako?
- Zer-nolako animaliak dira egokiagoak klonatzeko orduan?
- Historiako zein arotakoak dira sable-horzdun tigrea eta mamut iletsua? Baliteke horiek lurrean eta bizirik ikustea?

GRAMATIKA

- 2 Osatu esaldiak -a artikulua edo *bat* zenbatzailea erabiliz.

- Hori zen den? Hori katu da. Ez duzu ikusten, ala?
- Nik freskagarri hartuko du, eta zuk?
- Eman ogi eta bi opil, mesedez.
- Gure gelan bada mutil harroputz galant dena.

- 3 Aukeratu hitz egokiak, perpausak osatzeko.

- Pena *asko/handia* ematen dit *lagunetatik/lagunengandik* urruntzeak.
- *Anbulatoriora/Anbulatorioarengana* noa, *medikura/medikuarengana*.
- Bide *luzea/handia* dago amonaren *etxeraino/etxearenganaino*.
- *Zutan/Zugan* pentsatzean, oroitzapen *asko/handiak* datozkit burura.

- 4 Azpimarratu perpausotako zehar-osagarriak, eta inguratu osagarri zuzenak.

- Atzelariak baloia bota zion atezainari.
- Gure auzoko emakumeari katu batek sardinak jan dizkio.
- Ezezagun batek argazkiak egin zizkigun guri oharkabea.
- Bai politikak aitak amari ekarritako loreak!
- Aitziberri goraintziak eman dizkiot zure partez.

- 5 Osatu perpausak emandako juntagailu hauekin.

bai, nork, nahiz, zein, nola

- Hala itxuraz tratuz, oso interesgarria da Mikel.
- Nahiz gaur bihar, beti egongo gara zuei laguntzeko prest.
- Denok gara berdinak: bai zuek eta gu.
- Nork abestu, musika jo, etxean denok dakigu zerbait egiten.
- Nahi duenean etor daiteke, zein egunez, gauez.

LEXIKOA

- 6 Erantzun onomatopeiak erabiliz.

- Nola egiten dute txerriek txerri-kortan?
- Zer esango zenuke hatza mailuaz kolpatuko bazenu?
- Nola egiten du oihaneko errege omen den animaliak?
- Zer zarata egiten dugu trago bat edatean?
- Nola abesten dute txoriek udaberrian?

- 7 Berridatzi esaldiak, nabarmendutako enordez emandako esapideak erabiliz.

nagiak atera gorriak ikusi
leher eginda egon adarra jo

- Entrenamendua izan dut eta oso *nekatuta* nago.
- *Zabaldur gorputz-adarrak, tenkatu giharrek* eta prestatu lanean hasteko!
- *Gure kontura barre egin* nahian zabiltza, ala?
- *Askok sufritu* genuen partida irabazi ahal izateko.

ORTOGRAFIA



8 Eman zenbaki hauek idatziz.

- 113 • 17 • 7.493
- 571 • 2.783 • 22

9 Berridatzi esaldiak zenbakiei *-na* atzizkia erantsiz.

- Amonak 5 euro eman zigun biloba bakoitzari.
- Zaku bakoitzak 150 kilo pisatzen du.
- Puzzle bakoitzak 2000 pieza ditu gutxienez.



10 Jarri testuan falta diren puntuazio-markak.

Zuk badakizu txinpantzeak zer diren, ezta Jakingo ez duzu, bada Txinpantzea gizakiaren lehengusu-lehengusina dela esaten da maiz Antz handia dugu, egia esan batzuek besteek baino handiagoa . Hala ere, bazenekien txinpantzea gizakia baino askoz indartsuagoa dela Boxeolariek ere jai izango lukete animalia honen aurrean, alajaina Izan ere, gizakia baino lau aldiz indartsuagoa da.

KOMUNIKAZIOA



11 Entzun *Etorkizuneko animaliak hemen dira*, eta esan esaldi hauek egia ala gezurra diren.

- Aurten 30 milioi bisitari baino gehiago izan ditu Futuroscopek.
- Antzinako animaliak ikusi ahal izango dira bertan.
- Toratoiak 20 metroko luzera eta 110 tonako pisua izango du.
- Oskola izango duenez, harrapari nagusia izango da.



EGITEN JAKIN



LITERATURA



12 Irakurri eta erantzun galderei.

Arrasateko erreketeta

Gal didila Untzuetan eta Bergara
Zaldibarrek bere partea debala.
Aramaio suak erre hazala.
Ta sumi a[...].la Guraiarra,

Gomez handia zan arren,
Han zan Presebal bere,
Bai Joanikote bere.
Madalenen han ei dautza
Biola-tronpeta bage.



Arrasateko erreketaren kanta

- Zer herri apatzen dira testuan?
- Zer opa die poemaren egileak herri horiei?
- Zer pertsona-izen aipatzen dira?
- Zer gertatzen zaie pertsonaia horiei?

13 Azaldu zeure hitzez zer diren honakoak, eta aipatu adibideren bat:

- Eresia.
- Poema epikoa.

14 Nolako eragina izan zuen Donekajue bideak literaturan? Zer gehiago zabaldu zen bide horri esker?

Idazlan laburra



1 Idatzi gutuna zure herriko astekarian argitaratzeko. Gutunak 100 hitz izan behar ditu, eta hor zure iritziaren berri eman behar duzu, honako egoera abiapuntu:

Udalak erabaki du herriko jaietako egitarautik sokamuturra kentzea, animalientzat krudela delakoan. Urte askotako usadioari utziko zaio, era horretara.

- Azaldu zure iritzia argi eta garbi.
- Eman zure iritziaren aldeko argudioak, eta beharrezkoa balitz, erabakiarekiko kontrakoak.
- Testua biribiltzeko ondorio gisa, laburbildu zeure iritzia.